

## **Euskal edizioen historiaz (I): 1936 arteko ediziozintza**

**Blanca Urgell**

**(UPV/EHU)\***

Euskal edizioen historia egin gabe dago zeharo. Gauza batzuk ezagunak dira, eta beste batzuk azken urteotan ezagutzen hasi gara. Baina euskal edizioen bilakaeran zer gertatu den azaltzen saiatu den lan orokorrik, ez eta zatikazkorik ere, ez dut nik behintzat ezagutzen.

Eta halaz ere, gai hau antolatzaileek niri egokitu didate. Beraz, aitortuko dut zerotik ia hasi behar dudala, han-hemen bildu ditudan apurrak zuen aurrean aurkeztu eta interpretazio bat emanez.

Interpretazio bat emanez, bai. Zeren eta gaurko egoera ez baita honetaz piska bat dakigunek nahi genukeen bezalakoa. Eta, erran zaharrak dioenez, *de aquellos barros estos lodos*. Gaur euskal edizioen munduan bizi dugun egoera, euskal edizioen munduak izan duen bilakaerak azaltzen duela uste dut, eta nago antolatzaileek, lan hau egokitu didatenean, beste horrenbeste sinesten dutela.

Beraz, oraingo hitzaldi honetan, eta arratsaldekoan ere, ez dizuet izen eta data zerrenda bat aurkeztuko. Hau ere, egin gabe dagoenez, interesgarria da, noski. Eta honetarako, esku artean daukazuen zerrenda eratu dut, oraino zuzendu eta osatu beharko den zerrenda bada ere.

Baina, asmoz, zerrendatik aurrera egin nahi nuke, gertakari batzuen iraupena eta beste batzuen suntsipenaren kontu eman nahi nizueke.

Argitalpengintza, antzeko gauza guztiak bezala, tradizio baten gainean sortuaz doa. Beraz, tradizio hori nolakoa izan den, zein asmorekin sortu den, zein irizpideren gainean eratu den eta nolako tresna epistemologiko eta mekanikoak erabili dituen, halako galderei erreparatu diet bereziki, gaurko egoeraren sustriak ezagutzeko asmoz.

---

\* *Euskal testuen historiaz eta edizioaz (I)* UPV/EHUko Udako Ikastaroan emandako hitzaldia (2000-07-04). Lan hau UPV 033.130-HA005/98 eta Eusko Jaurlaritzaren PI97/49 proiektuen barruan kokatzen da.

Historia bi zatitan banatu dut. Oraingo zatian, Gerra Zibilera arte iristeko asmoa daukat, eta arratsaldeko saioan, berriz, handik aurrera.

Gerra Zibilera arteko euskal edizioen historia, dena dela, oso konplexua da, garai batzuetan, batez ere XIX. mendearen azken urteetatik aurrera, oso joera ezberdinak elkarrekin bizi izan baitziren.

Lehenengo hurbilketa denez gero, konplexutasuna zertxobait errazteagatik, bi atal nagusitan banatuko nituzke: (1) argitaragaia zerbaiten izenean funtsezko diren alderdietan aldatu izan duten argitaratzaileak; eta (2) argitaragaia errespetatu nahi izan duten argitaratzaileak. Halere, oinarrizko sailkapen hau zehazkiago bost taldetan bana daiteke:

1.
  - a) Argitaragaia bizirik dagoelakoan eguneratu dutenak;
  - b) Euskararen izenean aldatu dutenak;
  - c) Zientziaren izenean aldatu dutenak;
2.
  - a) Euskal irakurleen eskura jarri nahi izan dutenak;
  - b) Euskalarien eskura jarri nahi izan dutenak.

Bost norabide hauetan aritu direnen ordezkari, adibide batzuk baino ez ditut aukeratuko, gaingiroki hartuta, Gerra arteko edozein argitalpen bost atal hauetako batean sartuko delakoan.

Aurretiaz esango dut, liburuez gehiago mintzatuko naizela, euskara zaharraren pusketak baino ez diren testu txikiez baino, bigarren hitzaldian hobeto ulertuko diren arrazoiengatik.

Gainera, euskal testuez bakarrik kezkatuko naiz, gramatikak eta hiztegiak alde batera utzita. Gramatikez Ricardo Gómezek hitz egingo digu berehala, baina oro har, aurrera dezaket bai gramatiken, bai hiztegien argitalpenen historiak oso bilakaera ezberdina izan dutela, eta euren argitalpena behar bezala egiteak oso arazo ezberdinak aurkezten dituela, oso testu mota ezberdinak direlako, bistan denez.

Goazen, bada, bost atal horietako bakoitzari dagokiona kontatzera.

## 1. Argitaragaia funtsezko diren alderdietan aldatu izan duten argitaratzaileak

Atal honetan sartzen diren argitalpen guztiak, esan gabe doa ez dutela batere zerikusirik filologi lanarekin.

Baina ez dugu pentsatu behar kokka aldatu bai-ezeko eztabaidan datzala. Aitzitik, argitaratzailearen asmoan datza. Izan ere, filologoak testuaren egileak nahi zukeen bezala aurkeztu nahi luke testua. Eta hau lortzeko, hainbat gertakarik egilearen gogoaren kontra testuan eragin dituzten akatsak edo aldaketak identifikatu eta zuzendu nahi lituzke. Atal honetan aztertu behar ditugun argitaratzaileak, ostera, horretaz bestelako asmoak izan dituzte, testuari eta egilearen asmoari zor zaion errespetuarekin zerikusi gutxi dutenak. Nork bere asmoa izan dute halako argitaratzaileak, eta asmo hori betetzeko, testuaren gainetik igaro dira, inolako kupidarik gabe.

Honek ez du esan nahi ezinbestean honelako argitalpenak alde batera uztekoak direnik: besteak beste, garaian garaiko joeren erakusgarri ere badira. Baina jakin behar dugu zerekin lan egiten ari garen, honelako argitalpenak oraingo lan filologikoen iturri gisa erabiltzen ari garenean, batez ere.

Esan bezala, honelako argitaratzaileak hiru motatan bana daitezke gaingiroki:

- a) Argitaragaia bizirik dagoelakoan eguneratu dutenak
- b) Euskararen izenean aldatu dutenak
- c) Zientziaren izenean aldatu dutenak

Lehenengo taldeko argitaratzaileak sarritan izengabeak dira: badakigu norbaitek testua ukitu duela, baina ez nork. Halaz ere, ikustera goazen bezala, testua aztertuez gero, jakin daiteke zein asmorekin egin diren ukituak eta zergatik. Hau izan da euskal testuak argitaratzen hasi zirenetik eragin gehien izan duen argitaratze mota. Honelatsu berrargitaratu dira euskal liburu gehienak historian zehar.

Bigarren taldeko argitaratzaileak ez dira gehiegi bereizten lehen taldekoetatik. Bereizgarririk garrantzizkoena hauxe da: izenak ezagutzen ditugu, baita zer-nolako euskararen izenean egin dituzten aldaketak. Honelakoek iritzi finko eta trinkoak baitituzte, zer den benetako euskara eta zer ez, zer den euskaraz ondo idaztea eta zer ez, eta honelako gaiei buruz. Alerik nabarmenenak XIX. mendearen bukaera aldetik eta Gerra arte ditugu, lehenagoko zenbait ezagutzen baditugu ere, ikusiko dugunez.

Hirugarren taldean, izen bakar bat aipatuko dut, baina ez nolana hiko: Bonaparte printzea, euskal argitalpen askoren egilea.

### **1.1. Argitaragaia bizirik dagoelakoan eguneratu dutenak**

Atal honetako argitalpenak ulertzeko, gureaz oso bestelakoa den egoeran jarri behar gara.

Honelako argitaratzailearen ustetan, argitaratu behar duen liburua bizirik dago oraindik: liburuaren bizitza ez zen bukatu idazleak bukatu zuenean edota inprentak argitaratu zuenean; aitzitik, bere egunetan ere lehenengoz argitaratu zen bezain irakurketa beharrezkoa delakoan, honelako argitaratzaileek sentitzen dute eskubide osoa dutela liburua eguneratzeko. Arrazoi praktikoek gidatu ohi dituzte, ez arrazoi teorikoek.

Beraz, liburuak dituen akatsak, ustezkoak zein benetakoak, zuzentzen saiatzen dira; hizkuntzaren alderditik ere, garaian garaiko joera nagusien arabera edo artean hizkuntzak pairatu dituen aldaketan arabera zuzentzen dute; are berridaztera ere irits daitezke. Edukiari dagokionez ere berdin: uste baldin badute zati batzuk soberan daudela, edo liburuak zerbait falta duela, edo zerbait lekuz kanpo dagoela, kendu, erantsi zein lekuz aldatzen dute.

Lehenago hiru ezaugarri aipatu ditut: 1) honelakoak izengabeak izan ohi direla; 2) euskal liburu gehienak honela izan direla berrargitaratuak historian zehar; eta 3) hauxe dela gure argitalpengintzaren historian gehien iraun duen joera.

Esango nuke pentsatu ohi dugula lehenaz gainerako argitalpenak liburua salgai ipiniaz zer edo zer irabaz zezakeen inprimatzailearen erabakiak izan direla, eta liburuak, hortaz, lehenengo argitalpeneko errakuntzei errakuntza berriak eransteaz gainera ez zuela ezer irabazten.

Alabaina, zenbat eta hobeto ezagutzen ditugun, hainbat eta argiago dago sarrienik inprimatzaileak era bateko edo besteko laguntzaile euskalduna izan duela, liburu zaharrean euskaldun batek bakarrik egin zitezakeen aldaketak baitaude, proba zuzenketan jarritako arreta eskasari bakarrik egotz dakizkiokeen hainbat errakuntza berrirekin batera.

Adibide bat baino ez. Etxeberri Ziburukoaren *Noelak* hainbat argitaldi izan zituen XVII eta XVIII. mendeetan zehar. Ezagutzen dugun lehena 1645ekoa da, baina Vinsonek (1891-1898: 67, 15a zb.) uste zuen 1630. urtean edo hurrengoan kaleratutako

bat egon zela, eliz baimenak urte hartakoak izanik, hamabost urtez argitaragabe irauteari ezinezkoa baitzeritzan.

Orotara zortzi argitalpen ziur ezagutzen ditugu (Vinsonen arabera), 1645.ean hasi eta zehaztu gabe dagoen XVIII. mendeko dataren batera arte. Vinsonen beraren ustez, Etxeberriren liburu hau argitaratzeari utzi zitzaion *Cantico spiritualac* liburu argitaratzen hasi zenetik. Batak hartu zuen bestearen lekua, beraz, orduko *best-seller*-en artean; esan gabe doa *Cantico*-ei egokitu zitzaaien handik aurrera berrargitalpen usuak izatea, eta haietako askotan aldaketak, batzuetan handiak, pairatzea.

Edonola ere, gurera itzuliaz, egin dezakegu elizkarietan erabiltzen zen kanta-liburua zela Etxeberrirena, ez euskal klasiko beneragarri bat, inolaz ere, erabilera zeharo praktikoa zeukan kanta-liburu bat baizik.

Hartara, bestelako aldaketekin batera, Vinsonek 15f deritzon argitalpen datagabetik aurrerakoek hiru bertso berri (“Verbum caro”, “Claritates guçia...” eta “Jesus Haurtocho larru...”) erantsi dizkiote Etxeberriren testuari. Inor ez da saiatu hauen jatorria non egon daitekeen ikertzen, dakidalarik. Baina honek adierazten digu ezerk baino argiago liburu bizirik zegoela.

Bestalde, Akesolok (1970) egin zuen argitalpen modernoan dioenez, argitalpen guztiak daude hutsez josita. Emango ditudan adibideak, Akesolok bere argitalpenean egin dituen ohar urrietatik atereak dira (bere argitalpenaz arratsaldean hitz egingo dugu). Pentsatzekoa da inprimatzaile erdaldun ez oso arretatsuek egindako akatsak direla. Batzuetan Akesolok erkatu dituen argitalpen guztiek huts bera gordetzen dute:

#### IRAKURKETA

*burdiñak zathurik*

*lar elaren quideak*

#### AKESOLOREN ZUZENKETA

*burdiñak zathiturik* (1970: 33, 4. oh.).

*izar klaren kideak* (1970: 42, 6. oh.).

Edo irakurketa ezinezkoak, burugabeak, eskaintzen dituzte (tamalez, ez dakigu zein zeinena den, hurrenkera ezagutzeko):

#### AKESOLOREN ZUZENKETA

*denborak ZIOTSAN bezain*  
*ungi zuen troxatu*

#### IRAKURKETA EZBERDINAK

*botsan*  
*hotsan*  
*cuitsan*

Eta, halaz ere, badira arrastoak hor tartean euskaldunen bat ibili dela:

1) Bakar baten irakurketa ezberdina, potoa konpondu nahiz:

AKESOLOREN TESTUA  
(bakarraren testuarekin zuzendua)

GAINERAKOAK

*Alabañan aurkhi dire  
biak doloraturik,  
Semea galdu dutela  
DUTENEAN IAKINIK.*

*dutenean jakiten.*

2) Bakar baten *irakurketa facilor*-ak (ez dakit berbera den ala ez, Akesolok ez baitu azaltzen):

AKESOLOREN TESTUA  
(argitaldi gehienek arabera)

bakar baten irakurketa

*Hunela hasi zitzaion  
hizten koleraturik,  
Iainkoaren alderako  
zeloak ALHATURIK.*

*celoak alchaturic.*

*nork eztuke laztura?*

*nork eztugun laztura?*

Honelako gauzak, euskaldunaz beste inork ezin ditu egin. Eta, esan bezala, euskal liburu zaharren berrargitalpen zahar gehienetan kausi daitezke dozenaka, liburuaren izenburuari begiratzeaz beste gabe: *edicione corregitu eta emendatua* (Axularren *Geroko gero* = Vinson 22b), *emendatia* (Oloroeko catechima = Vinson 44b, etab.), *emendatua* (Chourio 1760 = Vinson 49c).

Batzuetan zehatzagoak dira, batez ere edukiaren aldetiko emendakinak daudenean:

EMENDATUA othoitz eta practica batez capitulu baccoincharen [sic] akhabañan, çoinac itçuliac içatu baitire Francessetic Escararat Bayonaco Diocesaco Jaun Aphez Missioner batez (Chourio 1788 = Vinson 49e).

Cristinaubaren dotriniaren esplicacinua eusqueras D. Martin de Arzadun, Durangoco urico eleissetaco beneficiadu ta arima jagoliac ipinija. Orain euskaldun gastechuben adisquide batec barristatuta eta cerbait gueituta emoten dau arguitara aterateco (Arzadun 1873 = Vinson 52d).

orain berriro Jesusen lagundi edo compañi bereco Aita Euskaldun batec, animen oneraco, arretaz icustatu, eta utseguñac kenduric, obetu ta geitu duena (Mb *JBDev* 1882 = Vinson 76d; zuzentzailea J.I. Arana bide da).

Eta emendakinak emendakinen gaintetik ezar daitezke:

Emendatua Meçaz eta Igandetaco Beperez. Emendatua othoitz eta practica batez Capitulu Baccoincharen [sic] akhabañan çoinac itçuliac içatu baitire Francessetic Escararat Bayonaco Diocessaco Jaun Aphez Missioner batez (Xurio 1825 = Vinson 49f).

lehenagoco edicione bera, cofesatceco eta comunitaceco othoitz batçuez emendatua (Xurio 1850 = Vinson 49g).

Cantico izpiritualac...ordena hobeago batean emenac eta emendatuac aurthen haiñitz cantica berriez (*CantIzp* 175? = Vinson 100b).

Cantico izpiritualac...guehienac erreberituac, eta hurren eçagutuac etcirenez emendatuac (1780 = Vinson 100d).

Honelako ia guztiak aztertu gabe daude (Etxeberrirenak izan ezik: cf. Atutxa 1999), nahiz eta liburuaren bizitza eta iraupenaren berri ezagutzeko ezinbestekoak izan, eta batzuetan garaian garaiko euskararen berri eman dezaketen.

Hobekien ezagutzen dugu oso kasu interesgarria: Irazustaren dotrinarena. Esan gabe doa dotrinak, kanta-liburuak bezalaxe, urteetan zehar berrargitaratzeaz batera eguneratuak izan direla beharra sentitu den orotan.

Irazustaren dotrina interesgarria da, Larramendik bultzatu zuen iraultzaren erakusgarri delako. 1739ko lehendabiziko argitalpenetik 1784kora bitartean egin ziren aldaketak hiru sailtan koka daitezke (Lakarra 1984: xxvii):

1) Erdarakaden orde, euskal itxura jatorragoko hitzak jarri dira:

esklabitude > mende  
valle > leku  
pekadore > pekatari  
guardatu > gorde  
fiñean > azkenean

2) Gramatikaz kanpoko berrikuntzak:

gaitz > gaizto  
eutzi > utzi  
belar > bekoki  
ohostu > ostu

3) Gramatikako berrikuntzak:

dana > dala  
zituana > zituala  
diuztegun > diegun  
diuzkun > dizkigun  
bidi > bedi

Aldaketok 1742ko edizioaren geroztikoak dira, eta Larramendiren hiztegiak zein gramatikak sentiberatasun berri bat zabaldu zutela erakusten digute.

Alabaina, honelako gertarakiak ez dira beti egile ezezagunarenak; eta, gainera, ez dira denak argitaldirik zaharrenetan gertatu.

Lehenengo ideia sendotzeko, bi adibide aski ezagun (baina oraingoz aztergabeak) ekarriko ditut: Harizmendik egin zuen Haranbururen berrargitalpena eta Inchauspek egin zuen Axularren *Geroko gero*-arena.

Bigarren ideiarako, berriz, hainbat adibide eman daitezke, baina gehienak sartzen dira peto-petoan egin dugun bigarren taldean —euskararen izenean aldatutako argitalpenen taldean, alegia, 1900-1936 garaiari dagokion bezala. Aipa daiteke, dena dela, Jean Etchepareren *Buruxkak* zentsuratua.

Haranbururen liburua lehenengoz 1735ean argitara zen, “Bordelen, P. de la Court erregueren ardutaco [sic] imprimatçaillea baithan”. Ondoren, beharbada lau berrargitalpen izan zituen (Vinson 1891-1898: 73-75, 16. zb. eta 540-541): bata 1641 edo 1642an, bigarrena 1660-1665 tartean Harizmendik zuzendua,<sup>1</sup> hirugarrena 1690ean eta laugarrena (ziurrenik aurrekoaren “contrefaçõn” bat) urte berean.

Kerejetak (1991: 867, 8. oh.) diosku Harizmendiren berrargitalpena 1635ekotik oso ezberdina dela; Harizmendik ez du kapituluaren eta gaiaren ordena bakarrik aldatu, testuaren mamia bera ere erabat aldatua eta ukitua dago, hainbestera non oso zaila baita batetik besterako kideak aurkitzea.

Halaz ere, Kerejetak berak dioenez, ezin da dudarik egin *Devocino Escuarra*-ren bermoldaketa denik, izenburua gordetzeaz gainera Harizmendik berak halaxe azaltzen duelako:

Huna obra hau, Debocino escuarra; oraikoa arrimu hobean heldu zaitzu...

Honelako gauzek eragina dute gerokoan. Larramendik Haranbururen *Te Deum laudamus*-aren itzulpena aipatzen ari zelakoan (1729: 279), Harizmendirena aipatu zuen, Vinson ohartu zen bezala, itzulpen hori lehendabizikoz Harizmendiren beraren *Virginaren Officio*-n (1660: 74-77) agertu baitzen.

Inchausperen *Geroko gero*-aren azalak honela dio:

GUEROCO GUERO edo arimaren eguitecoen gueroco utzteac cenbat calte eta çorigaitz dakharquen. Gogomenac, escritura saindutic, eličaco dotoretaric eta çuhurren liburuetaric AXULAR, Saraco Erretorac bilduac. Edicione berria, garbitua, chuchendua eta bere baithaco ordenan emana. Bayonan, Lamaignère Alhargunaren moldequintçan, 1864.

---

<sup>1</sup> Kerejetak (1991: 867) Harizmendiren berrargitalpena 1658 eta 1665 bitartean kokatu du, lehen mugarako Harizmendiren *Virginaren Officio* eta bigarrenerako Pouvrearen lekukotasuna erabiliaz. Halere, gogoratzekoa da *Officio* 1660an argitaratu zela, Vinsonek hasieran besterik pentsatu arren (cf. Vinson 1901: 113).



Aldeak aztertu gabe daude zehazki, baina Villasantek (1964: 12) kontatzen duenez, ezaguna da Inchauspe sinistuta zegoela Axularrek iragartzen dituen bi parteak liburuan bertan zeudela, eta honen arabera berrantolatu zituen kapitulu guztiak, lehengoarekin zerikusi gutxi duen moduan.

Gainera, Axular bizio zenbaitez (guztiz haragiarenez) mintzo den pasarteak, bere garaian ohi zen bezain gordin ari baita, Inchauspek ukitu edo ebaki ditu, bere garaiko belarrien *mimberatasuna* ez zauritzeko.

Izenburuak “garbitua, chuchendua eta bere baithaco ordenan emana” esanik, eta oraingo bi aldaketa mota baino aipatu ez dugularik, bildur izatekoa da hizkuntzan ere badaudekeela zenbait aldaketa, baina aztertu artean ez dago jakiterik “garbitua”-ren atalean (maileguak ordezkatuaz) ala “xuxendua”-renean sartu beharko diren.

Inchausperen *Geroko gero*-an bezala, bestelako argitalpenetan ere berrargitaratzaileak zentsura ezarri dio liburuari, “komeni ez diren” gaiak aipatzen dituenen. Villasantek kontatzen duenez (1979: 307-308), emaztegaririk gabe geratu zen honegatik Etxepare medikua. *Buruchkak* liburuak bi kapitulu “arriskutsu” zituen, bata irakaskuntza erlijiosoaren kontrakoa, eta bestea seigarren aginduari buruzkoa, presioengatik ere argitaratu zituenak. Hauek gabe atera zuen, beraz, Lafittek (1941), Etxepareren liburuak “maisuanak” direla etsita bazegoen ere. Badakigu eta amodio mota asko egon daitezkeela...

Bukatzeko, gogoratu behar da liburuak berpiztu izan direla itxura honetan inoiz, zeharo zaharkituak izan arren. Hala gertatu zen, adibidez, Leizarragaren *Testametu Berria*-rekin (ik. Vinson 3d-g): 1825 eta 1828an San Mateoren ebanjelioa, eta 1828an Testamentua osoki bi aldiz, laurak Baionan, *Lamaignère* inprimatzailearenean atera ziren. Laurak elkarte protestante ingelesek ordainduta. Fedea hedatzeko, esan gabe doa.

Dioenez, kopiarazi zuten Leizarragaren testua, Oxforden eta British Museum-en dauden aleetako batetik, eta euskaldun bat jarri zuten testua zuzentzen. Vinsonen ustez, baxenafartar baten lana da. Eta bi San Mateoak elkarren artean ezberdinak dira, bigarrena hirugarrenean errepikatzen da, baina berriz aldatzen da laugarrenean. Horra hor ikergai polit bat.

Urquijoren oharra (Vinson 3g) oso interesgarria da: bere alea baserri batean erosi zuen eta, haren ustetan, baserritarrak katolikoa bailitzan irakurtzen ari ziren.

## 1.2. Euskararen izenean aldatu dutenak

Baldintza hauxe da: argitaratzaile berriak euskara onaren eta txarraren artean bereizteko irizpideak izatea, eta argitalpenean erabiltzea.

Esan gabe doa lehenengo atalean sartu ditugun berrargitalpenetatik askok, edo batzuek behintzat, honen barruan sartu ahalko liratekeela; zehazkiago, aipatu ditugun izenetatik batzuk (J.I. Arana edo Inchauspe, adibidez), bai baitakigu ezarritako baldintza bete zezaketela. Halaz ere, ahal den neurrian bereizi nahiko nituzke asmo praktikoagatik hizkuntzaren aldetik ere ukitu ziren argitalpenak, hizkuntzaren onean bakarrik edo ia bakarrik pentsatuaz ukitu zirenetatik. Eta hau gero eta nabarmenagoa da 1900. urteak ezartzen duen muga igarotzen dugun heinean.

Dena dela, lehenago ere horren zantzuak aurkitu ere aurkitzen dira, literatur hizkuntzaren (edo euskalkiaren) kontzientzia sendotu ahala. Argitalpena ez den arren, Zabalaren *Adiciones y correcciones a la obra Urteco domecac del P. Astarloa* aipatu beharrekoa da, aukera izan balu, bai baitirudi bere erara berrargitaratuko zukeela. Ez dezagun ahaztu gramatikagile ere izan zela. Eta honelako gauzekin joan ohi da lotuta aipatzen ari naizen fenomenoak.

Zabalak hiztegi aldaketak eta gramatika aldaketak, bietakoak egiten dizkio Astarloaren idazlanari; adibide batzuk baino ez (denak eskuizkribuaren lehen orrialdetik hartuak):

a) hiztegi aldaketak

modu > bide  
 azaldu edo esplicaduric > azalduric eta iracatsiric  
 icasbidiac > dotrina-liburubac  
 gurarija > naiyac

b) gramatika aldaketak

badator onen bat > onen bat badator  
 leijen > leguijenzat  
 oi dana > doian

Halaz ere, honelako adibiderik argienak, XX. mendean aurkitzen ditugu:

Patrizio Orkaiztegik, Lardizabal berrargitaratzean (1908), atzean dauka bere *Observaciones para hablar y escribir tolerablemente en nuestro idioma euskaro* (Tolosa, 1906). Zeren eta berrargitalpenaren hitzaurrean hau esaten baitu:

Naiagoko nuke, nik nerez, Aitor-en izkuntza beingoan soildu, ondatu ta betiko galtzea, gaztelani ta beste erderetako gorapillo ta joskerez betea ikusi baño.

Beste horrenbeste esan daiteke Sabino Aranaren “Análisis filológico de un sermón euskérico escrito en 1792 por Don Juan Antonio Moguel, cura párroco de Markina, e inédito hasta la fecha” (*Bizkaitarra*, 1894-1895).

Ez dezagun ahaztu sabindarrek eta antzekoek nahiago lituzketeela liburu zaharrak erreak ikusi, Kirikiñok bezala, berrargitaratu baino. Orduan, zer gertatzen da halakoak lan honetan sartzen direnean? Bada, euren irizpideen arabera moldatzen dituztela. Hau frogatzeko, aski dateke *Euzkerea*-n (1936:14, 132-136) irten zen

- *utuka*

delakoaz kontu egitea,<sup>2</sup> baina gure iritzia ez, ordukoena baizik jakiteko, *RIEV*-en argitaratutako bi erreseina ekarriko ditut lekuko.

Lehen 1928koa da, eta A.S. delako batek (Altubetar Seber ziurrenik) izenpetzen du. Gaia, urte berean agertu berria zen Agustin Basterretxearen bertsoen argitalpen berri bat. Argitalpenaren egilea aita Erroman Galdos dugu, eta izenburua ikustea (*Yosukristo Gure Yaunaren Nekaustea*) aski da nolakoa den antzemateko.

Galdosek hiru erataria aurkezten du testua: erdian Agustin Basterretxea josulagun bizkaitarrak asmatu zuen moduan eta Kardaberatzek egin gipuzkerazko bertsoan; ezker-eskuin, berriz, A. Galdosek bizkaieraz eta gipuzkeraz berriztatutak.

Hauxe da egilearen asmoa, iruzkingileak dakarrenaren arabera:

orrenbeste izan arren, zazpiko oso bat bakarrik ere, euskera garbizkorik ez dago, guzti-guztietan erderakadaren bat agertzen da-ta. Oyek erderakada guztiok kendurik, *Nekauste* osoa euskera garbi eta argiz ematea da nere asmo ta gogoia (*RIEV* 1928: 654).

Eta hauxe bere iritzia, berriz:

Gogortxoegiya deritxogu Aitta Galdosen eritziori: *Nekauste* edo Pasiño zar orretan, zazpiko bat baiño geyago dira, gure ustez beintzat, euskera errikoi, mamintsuz eralduak, eta larregikeri biyetatik alde egitea on deritxoenentzat, *garbitasunorri* yagokoenez ere, akatz esatekorik aurkittu ezin lekiyoenak (...).

Kardaberazen neurtitz-pilla edo mordoska orrei, eta beste guztiai be, orrazi gogorrez igurtziten deutse Aitta Galdosek eta ortz artean letorkezan zamarrak bezela, baztarreratu, euskaldunon belarriyetan eta biotzetan errez eta gozatsu sartu oi diran itz bizi, argi, esanguratsu ta ederrik asko: *Bekatu* (*Bekatari*), *mundua*, *ortu-santua*, *kanta dezagun*, *kaliza*, *anima*, *gorputza*, *soka*, *kalea*, *maisua*... eta abar (...).

---

<sup>2</sup> Erreferentzia Sancho el Sabio Fundazioaren katalogoan aurkitu dut, baina oraindik ez dut ikusterik izan.

Orraitiño, neurtitz zaarrok larregi ez itxulastearren edo, bakean utzi deutse, euskal joskera ta gramatikari jagokonez eurak agertzen dittuen erderakadatxu batzuei.<sup>3</sup>

Bigarren erreseina Angel Irigarayk izenpetzen du, eta ez da liburu zahar batez ari, *Euskaltzaleak* elkarteak egindako Txomin Agirreren *Garoa* (1912) liburuaren bigarren edizio *obetua*-z baizik (1935).

Antza, lehen argitalpena agortuta zegoen, eta asko noiz berrargitaratuko zain zeuden. Alabaina, azalak *Bigarren agerraldi obetua* dio, Irigarayren ustetan *Bigarren agerraldi aldatua* esan beharko lukeen arren. Haren iritziz, grafia eguneratu zitekeen, Euskaltzaindiaren arauai egokituaz, hala nola “*algunas irregularidades fonéticas de Aguirre, como sapsi, que correctamente es zazpi*”. Baina argitaratzaileak ez dira hartara mugatu: liburu osoa zuzendu dute, “de tal manera que este *Garoa* ya no es de Domingo Aguirre”.

Zuzenketen adibideak eman eta gero, ondorio honetara iristen da:

Como estas correcciones se prodigan en toda la obra, creemos inexacta la afirmación del destacado poeta Luis de Jauregui, cuando dice: “que sale (*Garoa*) de las prensas notablemente mejorada bajo el punto de vista literario por las correcciones de lenguaje con que una mano maestra ha sabido hábilmente revestirla” (*el Día*).

Tampoco puede decirse: “que el verbo guipuzcoano sale ganando en esta segunda edición visiblemente”. Los ejemplos que hemos apuntado contradicen paladinamente ese juicio: y demuestran que en la edición original, se cuidó mejor el casticismo; se evitó la cacofonía del lenguaje, y se dijeron cosas *distintas*, de las que se dicen en esta nueva edición.

Creemos que una reedición de una obra *agotada*, se debe de hacer respetando escrupulosamente la personalidad literaria del autor (que se traduce *en la forma* y estilo propios) y en el caso de hacer alguna corrección, el autor de ella esté obligado a advertirlo honradamente, para que en todo caso pueda el lector referirse con exactitud al autor original y saber a qué atenerse (*RIEV* 1935: 197).

Istorio hau nahita aipatu dut Irigarayren erreseinatik, idazlearekiko eta haren lanarekiko begirunea ezinutzizkotzat daukan sentiberatasun berri baten lekuko baita. Erreseina, gainera, *RIEV*-en egina dago, eta geroago ikusiko dugunez, berau izan zen edizio fidelen santutegia liburu zaharrak erre nahi izateraino iritsi zen garai eztabaidatsu hartan.

Baina 1936 baino lehen argitalpenen erregea izan zen talde hau itxi eta bestelako sentiberatasunak aurkezten hasi baino lehen, ezinbestekoa dugu Bonaparteren argitalpen bereziak aipatzea.

---

<sup>3</sup> Ez da kasualitatea izango, bada, Basterretxearen bertsoen edizioa urte gutxi batzuk geroago *RIEV*-en (1931) argitaratu izana.

### 1.3. Zientziaren izenean aldatu dutenak

Bonaparteren argitalpenei izenen bat eman behar, eta hauxe aukeratu dut. Hainbat argitalpen egin zituen bere garaian, haietako asko gaur egun ere ezinutzizkoak dira eta, beraz, baduke interesik zein irizpiderekin egin zituen jakitea.

Halaber, Vinsonen liburuan hara-hona nembilela, honako izenburu honekin topo egin dut:

Formulaire de prône conservé dans l'église d'Arbonne et réédité sans aucun changement par le prince Louis-Lucien Bonaparte. *A Bayonne*, chez Madame veuve Lamaignère,...1866 (= Vinson 23c).

Inolako zalantzarik gabe, Bonaparte da euskal idaztiak helburu praktiko hutsa alde batera utzita, helburu zientifikoarekin argitaratu edo berrargitaratu dituen lehena. Bada aurrekari bat, ordea: Leizarragaren bertsiotik hartutako Lécluseren *Sermon su la montagne en grec et en basque, précédé du paradigme de la conjugaison basque* (Toulouse, 1831 = Vinson 3h), Londreseko Gwyneddigion Elkartearen eskariz egina.

Dena dela, ez dago ezer Bonaparteren argitalpen lanaren tamainari aldera dakiokenik. Aukeratu zituen liburu zaharrak, Iturriagaren *Jolasak* (Londres, 1857), Lizarragaren *Koplak* (Londres, 1868) eta San Juanen ebanjelioaren itzulpena (Londres, 1868), *Formulaire* delakoa bezalaxe, zein bere euskalkiaren lekuko gisa argitaratu zituen.

*Formulaire de prône*-ren argitalpenaren izenburuaren arabera, espero genezake Bonapartek, hizkuntza aztertu nahi zuenez gero, egilearen idazkera goitik behera gordeko zuela. Baina, ikustera goazen bezala, hau da guk orain egingo genukeen zerbait. Ez berak egin zuena.

Altunak Iturriagaren *Jolasak* berrargitaratu zituenean (1987: 27) aztarna eder bat utzi zigun, zein zen Bonaparteren argitaratze modua:

...Bonapartek gipuzkerazkoa, Iturriagaren 1842koa, ez zuelako honek hamabost urte lehenago Ernanin agertu bezala eman, ezpada berak bere gisa —ala Uriarten esanera?— aldaketa txiki batzu eginik. Bonapartek ere bere mania txikiak baitzituen. Ez zuen, esate baterako, herriak erabiltzen ez zuen eta inork asmatua zen hitzik maite eta Iturriaga orduko hila baitzen, bere gogara egin zuen zenbait aldakuntza. Har badezagu, esate baterako, *Lehenbiziko jolasa*, aldakuntza hauek antzemango ditugu: Iturriagak *ciricoa edo seda* dioenean Bonapartek *sedabakarrik* uzten du eta beste bitan *ciricoa* bakarrik ageri baita Iturriagarenean, haren ordez *seda* ezartzen; Iturriagak *boltsa edo zorro* dio eta Bonapartek *bolsa* bakarrik uzten du, eta hori bi bider. Gainerako zuzenketak sinpleak dira: Iturriagak *baña*, *lerdia*, *lirdizco* (hutsa ote?) eta *pistuco*; Bonapartek aldiz *bana*, *lerdea*, *lerdezco* eta *piztucu*; halaber Iturriagaren *-tcen* asko –

*tzen idazten ditu, eta azkenik beste hau: Atseguin det jaquitea* dio Iturriagak; Bonapartek berriz *Atseguin det jaquiteaz*, lehena okerra edo hutsegitea balitz bezala.

Camino eta Gómezek aspaldixko (1992) Bonaparteren irizpideen berri emango zutela iragarri arren, tamalez lanaren bigarren zatiak ez du oraingoz argia ikusi. Hala ere, Gómezek adeitsuki laburbildu dizkit Aezkoa, Zaraitzu eta Erronkariko dotrinen argitaratuak (1869) eskuizkribuekin erkatzerakoan antzeman zituzten joerak. Berak hiru hitzetan utziko luke Bonaparteren jokabidea: bateratzailea, garbitzailea eta zuzentzailea.

Bateratzailea izan zen edukiaren aldetik: erkaketa errazteko parez pare ematen dituen testuak, nahi izan zuen denak eduki berberekoak izatea; hortaz, batean faltan eta bestean soberan zegoena berdintzen ahalegindu zen. Adibidez, Aezkoako eta Erronkariko dotrinen eskuizkribuetan badira galdera bi Zaraitzukoan ageri ez direnak (15): *aezkeraz Bada infernu vat vaino gueyago?* eta *Eta cer gauza dira?* (14) eta erronkarieraz *Eta iburni bat beino obro dagua?* eta *Eta cer gaiza dra?* (21) galderak, beren erantzunekin batera. Argitalpenean ez dira agertzen (28-29).

Bateratzeko joera horrek joskera ere eragin dezake: hurrengo adibidean, Erronkariko dotrinaren joskeraren arabera zuzendu ditu gainerako biak:

RONC. Cer entelegatan tzu Christo gore Geina hil gueroztic ssachi cen iburniaz? (esk. 20).  
Cer entelegatan tzu Cristo gore Geina ilez guero ssachi cen iburniaz? (arg. 29).

AE. Cer entendatcen duzu infernuas ceintra sautsi vaitce Cristo gure Jauna il ondoan?  
(esk. 13-14).  
Cer entendatzauzu Cristo gure Jauna il ondoan sautsi cen infernuas? (arg. 28).

SAL. Cer entendatcen cie ifernu cartaz zointra saunsi baicen Cristo gure Jauna hil ondorean?  
(esk. 15).  
Cer entendatcen ssu Cristo gure Jauna il ondorena saunsi cen ifernuaz? (arg. 29).

Badirudi, beraz, hizkuntzari buruz Printzeak uste zuenarekin zerikusi gehiago duen aldaketa baten aurrean gaudela, alegia, bateratzearekin bat hobesten zuen joskera hautatu zuela, ez halabeharrez, noski, ez eta demokratikoki ere, dakusgunez.

Garbitzailea izan zen hiztegiaren aldetik: *edo*-z lotutako sinonimoak, ikusi dugu Iturriagarenean ezabatu zituela, forma bietako bat bakarrik hautatuz, eta bestea, bera bakarrik agertzen denean ere, sistematikoki ordezkatu zuela.

Altunaren ulerkera eztabaidagarria da, halere. Bere iritzian, mailegu ustez herrikoia hobesten zuen Bonapartek, inork asmatutako hitzaren kaltetan. Baina, egiatan, nork esan lezake *zirikoa* eta *zorroa* asmatutakoak direla?

Dotrinetan ere, *edo-z* lotutako bikoteak soildu ditu Bonapartek; hurrengo lehen adibidean hitz jatorra hautatzen du, eta bi maileguren artean gaztelaniazko bertsioan agertzen denaren kidea hautatu du (*Es la congregación...*) bigarrenean:

AEZK. esk. *eguiascoa edo verdadera* (10) > arg. *eguiascoa* (25)  
esk. *unione edo congregacioa* (16) < arg. *congregacioa* (30).

Garbitzailea dela esan dut, ez *garbizalea*; lehen adibidean R-k eta Ae-k *eguiazcoa* bakarrik ematen dute.

Ziurrenik Bonapartek izan zuen bateratzeko eta garbitzeko joera horiek hirugarren joeraren azpikoak baino ez dira. Izan ere, esan dut Bonaparte zuzentzailea ere izan zela. Eta nola? Bada, berriemaileek bidalitako bertsioak bere irizpideen arabera goitik behera zuzenduaz. Suposatu behar dugu euskalki bati buruz edo are hizkera bati buruz eginda zeukan irudiaren arabera zuzendu zukeela lehenik eta behin, eta gainera oro har euskarari buruz zituen iritzieen arabera ere bai. Eskuizkribuak argitaratuarekin erkatzea inor harri eta zur uzteko modukoa da.

Adibide batzuk, gehiegi arakatu gabe aurkituak: Aezkoako dotrinaren eskuizkribuaren lehen orrialdean genitibo singularra bitara agertzen da: *-aren* eta *-ain*, baina argitalpenean *-ein* baino ez:

vecatuain > becatuein  
sanduaren < sanduein  
Aitaren < Aitein  
Semearenean > Semeinean  
Sanduarenean < Sandueinean

Caminok (1997: 377) aezkeran aurkitutako forma ugaritasuna (*-áen*, *-ain* edo *-ein* nahiz *-in*) hein handi batean zaharragoa da, beraz.

Zaraitzuko dotrinaren eskuizkribuan *Aitagurea*-n behin eta berriz *bedi* agertzen da; ez argitaratuan, ostera:

santificatric izan bedi > izan dadiela  
ssin bedi > ssin dadiela  
eguin bedi < eguin dadiela

Dotrinaren hasieran, argitaratuan *izatra* (Ae eta Z) vs *ecutra* (R) bereizkuntza dakusgu; eskuizkribuetan, berriz, *iduitcera* (Ae), *edoquizra* (Z) eta *equtra* (R) dago. Eta honela hainbat ezaugarritan.

Lan handia egin zuen, dudarik gabe, Printzeak. Baina lanaren handiak ez luke estali behar, gaurko filologoa ezin daitekeela besterik gabe haren argitalpen “berezi” hauetaz fidatu, ez eta gaurko hizkuntzalaria ere, noski.

## **2. Argitaragaia errespetatu nahi izan duten argitaratzaileak**

Argitaratu behar duen testua berariaz errespetatzen duten argitaratzaileak agertzeko, badirudi gutxieneko baldintza bat beharrezkoa dela: hura den bezala ezagutzera emateak interesa daukala sinistuta egon behar du.

Honelako argitaratzaileak agertzeko ziurrenik bide bat baino gehiago dagoen arren, gure kasuan uste dut bi ezaugarri nagusi bildu zirela:

1) Testuekiko urruntasun sentimendua: halakoentzat testu zaharrak ez daude bizirik, fosilduta daude. Antzinako hizkuntzaren lekukoak dira ezer baino lehenago. Klasikoak, zenbaitetan bederen.

2) Gure argitaratzaile hauek “antzina-gauza zaleak” dira, Kirikiñok esango zukeenez.

Lehendik ere esan dut honetan bi eratako argitaratzaileak izan zirela, gaingiroki hitz eginez: (a) antzinako liburuak euskal irakurleen eskura jarri nahi izan zituztenak; eta (b) euskalarien eskura jarri nahi izan zutenak.

Bi taldeak beste ezaugarri batengatik bereiz daitezke, oso salbuespen gutxirekin gainera: euskal herritarrek euskal irakurlerian pentsatzen dute; atzerritarrek, berriz, euskalariengan. Hau baino argiagoa da, eta erabatekoagoa, Mitxelenak behinola egin zuen bereizketa:

*Pro domo* ari naizelarik, leku agerian ipini nai nuke emen, bearbada alferrik izango ez delakoan, euskalariak izan direla, ez euskaltzaleak —“ofizioz” euskaltzale direnak, beintzat—, Etxepareren obra bezala, ainbeste euskal autoreren obrak argitara atera, azaldu eta adierazi dituztenak (Mitxelena [1968]: 12).

Gogora dezagun liburuak errespetatuaz argitaratu zituzten euskaltzale bakan-bakanak euskararen izenean testuak aldatu zituzten euskaltzaleekin batera bizi izan zirela, euskara kutsatuta ikusi baino hiltzea nahiago zuten Orkaiztegi bezalako euskaltzale itsuekin, baita euskal liburu zaharrak surtara botako zituzkeen Kirikiño bezalako euskaltzale kirtenekin.



Orotara, egia esan, ari garen garaian ezin izan dut pare bat izenez besterik bildu herrikideen artean: Archu, Francisque-Michelen laguntzaile aritu zena, eta Azkue.

Berriz, “euskalari” izena ongi irabazia daukaten atzerritarrak nahikotxo dira: Lécuse goiztarra aipatu dugu lehenago, eta Francisque-Michel berriki; Linschmann eta Schuchardt ezinutzizkoak dira, eta Vinson, Dodgson, Stempf, van Eys, Webster, Fidel Fita... Hauen arteko salbuespen bakarra, euskalduna ez zen heinean erdibidetsuan bide duguna, Julio de Urquijo dugu.

Bereizketak ez du esan nahi lehenek argitalpen txarrak eta bigarrenek argitalpen onak egiten zituztenik. Bai zera. Egiatan bi alderdietan aurkitzen dira onak eta ez hain onak. Aldea asmo, irizpide eta metodoetan datza; ez ondorioaren kalitatean: asmoak ezberdinak izanik, metodoak ere ezberdinak izango dira, eta ondorioak ere bai gehienetan.

## **2.1. Euskal irakurleen eskura jarri nahi izan zutenak: euskaltzaleak**

*Euskaltzaleak* elkarteak Agirreren *Garoa* goitik behera *aldatuta* argitaratu baino nahikoa urte lehenago, Azkuek baliatu eta sustatu zuen izen hori, ezaguna denez, *Euskaltzale* aldizkaria eta *Euskaltzale* liburu bilduma sortuz.

*Euskaltzale* liburuteria zeritzan bildumak atera zituen liburuez ezer gutxi dakigu, egia esan. Villasantek (1979: 388) Añibarro, Ubillos eta beste berrargitaratu zituela diosku, eta nik ezagutu, lehena bakarrik ezagutzen dut: Añibarroren *Esku-liburua* (1897). *Euskaltzale* aldizkarian (1897: 104) egiazta daiteke harekin batera Añibarroren *Lora-sorta espirituala* ere argitaratu zuela.

*Euskaltzale* aldizkaria (1897-1899), berriz, denok ezagutzen dugu, edo nahi izanez gero ezagutu dezakegu, duela ez gehiegi (1982) haren faksimilea eskura jarria izan baitzen. Eta aldizkari honen aleetan sakabanatuta, Barrutia, Gasteluzar, Iturriaga, Iztueta, Kardaberatz, Mendiburu, Mogel eta Uriarteren pusketak bederen txertatuta daude, baita, ezaguna denez, *Refranes y Sentencias* ere.

Batean izan zein bestean, esango nuke Azkueren argitalpen guztiek ezaugarri berberak dituztela. Eta ez nuke esan gabe utzi nahi, XX. mendean argitaratzeari utzi ziola ia erabat (Zabalaren alegiak salbu? *RIEV* 1907-1909), ziurrenik bestelako lan ugariak nahikoa eta sobera lanpetuta izan zutelako.

Argitalpen guztiek ezaugarri berberak dituztela esan dut, baina salbuespen nabari eta ezagun bat egin behar zaio: ahozko testuei ez die testu zaharrei dien begirunea inondik ere gordetzen. Manuel Lekuonak *Cancionero popular vasco*-ren bigarren edizioaren aurrean gai honetaz jarri zituen hitzetatik batzuk, nik esan nezakeen guztia baino argigarriagoak bide dira:

Azkue, que también él pagó su parte de tributo al afán reformista de su tiempo con respecto a las letras, publicando antes del *Cancionero* varios cuadernos de piezas seleccionadas, sobre letra original suya (...), en el momento de darnos la obra casi total de sus investigaciones, fue más auténtico y más agradecido al pueblo de cuya boca había bebido sus preciosas melodías, dándonos ahora la totalidad de las correspondientes letras, desconcertantes a veces, si se quiere, pero siempre de recio sabor popular.

Mucho tendría que luchar Azkue consigo mismo, para dar al público las letras recogidas, tal como las recogió; y hasta alguna vez hubo de someterlas a algún retoque. Pero es también necesario consignar que cuando en su afán purista retoca alguna expresión, lo hace consignar así en nota al pie del texto, dándonos allí mismo la expresión original (Lekuona, *in* Azkue 1968: ix).

Zeharo gomendatzekoa da *Cancionero*-an zehar osteratxoak egitea, Azkuek egiten dituen iruzkin gatz-ozpinduak irakurtzeko.

Baina, zein da, salbuespen honetaz gainera, Azkuek argitaratzerakoan erabiltzen zituen asmo eta irizpideak? *RS Euskalzale*-n argitaratzen hasi aurretik jarri zuen oharrak argituko digu:

Liburu eder au agortu-aginik egon da. Darmstadt-ko Liburutegian bakar bat egoan. Van Eys-ek birregin da igaz barrero argitaratu eban. Eztakit zelan ordaindu ginaion euskaldunok euskalzale iakintsu ta errime oni, guri egin dauskun mesedea. Esku gitxitara eldu leike liburu au; batetik moldaldi laburra egin dalako, bestetik nai litzakean baizen merkea ezalako. Onegaitik EUSKALZALEK irakurleai erakutsi nai dautse. Onetarako, eskutizkera (ortografía) zaarra ta gutiz txarra, barriraztuta agertuko dogu (Azkue *Ezale* 1897: 28).

Ahalik eta gehienen begien aurrean jartzea da, beraz, Azkueren asmoa, eta orduan bizirik zeuden tirabira ortografikoen gainetik, *Euskalzale*-ren bitartez bultzatzen ari zen grafia berrian jartzea. Hori bera egiten du Añibarroren *Eskuliburua*-rekin ere: grafiaren aldetik berriztatzea, eta besterik ez.

*RS* ez baita edonolako liburua, dena dela, “Gaztelarrez da prantzesez biurtuko doguz; eta esakune bakoitzai azalgeta labur bat geituko iako”. “Azalgeta” hauetako bat irakurtzeak argi utziko digu zer-nolakoak diren, baita zer-nolako irakurleriarentzat ari zen ere:

*Zagokez isilik ta entzun eztaizu geiztorik.*

Gaur *zagokez*-ek daukan *ke* ori, Lapurdi-aldean oituten da, baina gure artean ez. Bakar bakarrik al izatea adierazoteko noizik noizera oituten da. *Zagokez* da *egon al zara, egon zaikez, al zagoz, egon zaitkez* bardinak dira (Azkue *Ezale* 1897: 53).

Honezaz gainera, *Euskalzale* aldizkariak aipatu ditugunen aldean egiten duen Iparraldeko argitalpen bakarra, oker ez banago, Gasteluzarren *Salve Regina*-ren itzulpena da (*Ezale* 1899: 173); eta, maileguak (*divinoa, desterruan, puxanta, gloria*), orduko ohituren arabera, etzanez markatuta agertzen badira ere, bere hartan utzi dira, utzi ere, hala nola <h> guztiak ere (*haurrak, oihuz, hirriskuan, etab.*).

Maileguak direla eta, azken oharño bat: Iturriagaren *Done Iñigo Loiolakoaren ibilneurria*-n (*Ezale* 1897: 243) ohar bakarra dago:

TESTUAN: *Jesusen Kompañia*.  
OHARREAN: *Lagundia* esan leike.

Hala bada, testu zaharrak irakurle lainoen irakasgarritzat hartuak dira: ilunak direnean azalpena eskaintzen du; eta traketsak edo direnean, maileguaren ordeztzer erabil daitekeen azaltzen dio irakurleari.

Baliteke argitalpenok astiro aztertuez gero, kritika batzuk egin behar izatea; halaz ere, zuzen mintzatuz, aitortu behar dugu bestek ez bezalako lana egin zuela garai hartan.

## 2.2. Euskalarien eskura jarri nahi izan zutenak: euskalariak

Oso bestelako kontua dugu euskalarien arloan sartzen garenean. Mundu honetan, Azkueren irakurleriak zer esan gutxi dauka. Argitalpenak jakintsuentzat egiten dira, eta jakintsuen aurrean da erantzule argitaratzailea. XIX. mende bukaerako eta XX. mende hasierako filologiaren eta bibliofiliaren munduan sartzen gara, besteak beste. Eta honegatik, batzuetan *Euskalzale*-ren irakurleriatik bezain urruti dagoke guregandik ere.

Harrigarria da guretzat letra baten altuera berdin-berdin ez erreproduzitzeagatik, edo hitzak lerro bukaeran ez mozteagatik eztabaidatzea. Are harrigarriagoa dateke guretzat, baina, orduko erreseinak irakurtzea, *laisser faire*-ko mundu batean bizi garenez gero, tamalez ziurrenik.

Dena dela, guztiok ados egongo gara orduan sartzen dela filologia euskalaritzaren munduan. Kontsigna testuak diren bezalaxe argitaratzea da, eta argitalpena testuari buruzko ikerlanak egiteko profitatzea. Orduan argitaratzen den testu mordoskari buruzko lanak, gehienak gaur ere ezinutzizko erreferentziak dira.

Dena zatikatzen ari naizenez gero, egin ditzadan hemen ere bi zati:

1) Argitalpen edo berrargitalpen arruntak egitera ematen diren euskalariak. Gehienak, egia esan.

2) Teknika berriak profitatuaz, ahaleginean faksimileak egitera ematen direnak. Bigarren talde honen adibide bakarra eta aldezte sutsua Urquijo dugu. Besteak beste, faksimile eta antzekoei zien atxikimenduari esker —eta sakeletik askatzen jakin zuen diruari esker— gorde da Darmstadteko *unicum*-aren lekuko bakarra den argazki sorta.

Mota honetako argitalpen berri ia guztien ezaugarria da, esan bezala, testua ahalik eta gehiena errespetatzea, den bezala aurkeztea, gero ikertzaileak hari buruzko lanak eta edozertariko iruzkinak egin ahal izateko.

Zalantzarik gabe, orduko ekoizpenik onena eta aipagarriena Linchsmann eta Schuchardten Leizarraga osoaren berrargitalpena da (1900). Testua orriz orri, lerroz lerro eta letraz letra errespetatzen saiatu ziren, baita neurri handi batean lortu ere; orduan xehetasun nimiñoetarako ere zebilen zaletasun miresgarri haren lekuko ezin fidelagoa den hitzurre luze bat ere erantsi zion Scuchardtek argitalpenari, Euskaltzaindiaren faksimilean (Hordagorenean ez bezala) zorionez alemanez nahiz gaztelaniaz irakur dezakeguna.

Honelatsuko gainerako argitalpenez den bezainbatean, euren artean ere tirabirak daude, honek huts asko dituela, hark aldaketak egin dituela, etab. Baina, akatsen gainetik, aitortu behar da orduan liburu garrantzitsu mordoa argitaratua zela, batzuetan lehenengoz, euskalari hauei esker.

Zerrendan (ik. eranskina) ikus dezakezue nolako lana izan zen, agian gauza batzuk falta badaitezke ere. Sarritan, Vinsonek berrargitaratu zituen Argaignaratsen *Devoten breviariora* edo Harizmendiren *Virginaren officioa* bezala, ordurako jadanik ale bakarrean gordetzen ziren. Honelako lanak ez izatera, beharbada egun galdutzat jo beharko genituzke.

Bi lan bakarrik aipatuko ditut orain, beren berezitasunarengatik: Francisque-Michelen Oihenart (1847), lehena izateagatik; eta Vinsonen Harizmendi (1901), lan filologiko gehiena eskatu zuena baita, ziurrenik.

Francisque-Michelek Oihenarten *Atsotitzak* eta *Neurtitzak* bigarrenez argitaratu zituen, 1657ko lehen argitalpenetik ia berrehun urte beranduago, beraz. Vinsonek dioenaren arabera (26b), Michelek Baionako alea erabili zuen, Parisko Biblioteka Nazionalekoarekin kolazioa eginik, baina lehentasuna beti Baionakoari emanek, zeren

eta etsita baitzegoen bertan zeuden zuzenketa eskuizkribatuak Oihenarten beraren eskutik jalgiak zirela.

Alabaina, Michelek akats bat egin bide zuen: euskararen ulerpenean laguntza eskatu zion Archuri eta, beti Vinsonen bertsioaren arabera, honi zor zaizkio argitalpenaren 277-305. orrialdeen artean agertzen diren iruzkin harrigarriak (“fort étranges”) eta argitalpenean egin ziren zuzenketa arbuiagarriak.

Vinsonek Harizmendiren *Virginaren officioa* (1660) berrargitaratu zuen. Argitalpen berriak 75 aleko tirada baino ez zuen izan, eta haietako bakar bat ere ez zen salgai jarri. Bibliofilo kontuak, beraz. Baina ez da hori interesatzen zaiguna, argitalpena nola egin zen baizik. Izan ere, berrargitalpenari ekin orduko Harizmendiren liburuaren ale bakar bat ezagutzen zuen Vinsonek: Bonaparterena izandakoa, honen alargunak eskuzabalki egun batzuek utzitakoa. Eta ale honi hainbat gauza falta zitzaizkion, izenburutik hasita; orotara, oker ez banago, 39 orrialde osorik eta lauren erdia, eta alea bera egoera eskasean zegoen.

Falta ziren orrietako batzuk (8 orotara) eta erdizka baino ez zeudenetarik bi, kopia eskuizkribatu batean (Vinsonek 50 bat urte lehenago egindako kopiatzat aurkezten du) gorde ziren, eta hura baliatu zuen argitalpena osatzeko.

Vinsonen asmoa argitalpena “exacte” izatea da; honetarako, den-dena errespetatu du, baita huts tipografiko nabarmenenak ere, txikikeria batzuk —denak xehe-xehe azalduak— izan ezik.

Haren lana goraiagarria da. Berea da Hordagok 1978an atera zuen faksimilea, hala nola *OEH*-k, besteak beste, iturri gisa erabili duena. Harizmendi Vinsoni esker ezagutzen dugu. Baina Vinsonen begien bitartez ere bai. Izan ere, berrargitalpena kaleratzear zegoela, Dodgsonen adierazi zion bazela beste ale bat, osoa eta ondo zaindua, Oxfordeko Bodleyan Library-n, agian Pierre Urterena izandakoa. Vinsonek Bonaparteren aleari falta zitzaizkion orrien kopia “minutieusement exacte” bat eginarazi zuen, eta bere argitalpenaren ondoan erantsi zuen, “Appendice” delakoan (113-130). Horrezaz gainera, “a ma grande surprise” diosku, orrialde horietako testua “tout à fait différent de celui que portait la copie manuscrite qui m'avait servi de prototype” (1901: 114), hizkuntza modernoagoa eta “entaché de bas-navarrisme” baita.

Vinsonen eragina puntu honetan hain handia izan da, non *OEH*-k, adibidez, oraindik 1658ko data aipatzen baitu liburu honetarako, baimenak urte hartakoak izanik

Vinsonek egin zuen dataren arabera, eta ez Bodleyan-eko alean dagoen (egiazko) 1660eko dataren arabera.

Diodan bidenabar: Linchsmann-Schuchardt edota Vinsonen lanak erraldoiak izanik ere, ez ote da iritsi eurak berrikusteko garaia?

Urquijoren lanak —batzuk bederen— hobeto ezagutzen ditugu, besteak beste argitalpen berriak prestatu baitira edota prestatzen ari baitira, eta honen kariaz haren lana kontuz azterkatua eta kritikatu izan da zenbaitetan. Honegatik ere merezi du haren lanari buruz luzexeago hitz egitea. Baina inolaz ere eraikitzen hasi naizen historia honetan Urquijok toki berezi bat dauka. Linchsmann eta Schuchardt-en lanak eta are Vinson batenak, hitzik gabe bezala utzi gaituzte: eurek egina bada, ondo egina izango da. Baina Urquijoren lanak, Gerrak eten bazuen ere, ondorenak izan ditu bere izena daramaten Mintegiaren eta liburutegi aberatsaren bitartez. Mintegiaren altzoan eta liburutegiaren arrimuan egin ziren Mitxelenaren lan filologiko gehienak, eta bertako altxorrari zor zaizkio, neurri handian, Gerra ondoren egin izan diren argitalpen garrantzizkoenak.

Urquijoren argitalpen lan gehiena, ezaguna denez, *RIEV* aldizkarian egin zen. Bertan agertuaz joan ziren, hurrenez hurren, Peñafloredaren *Borracho burlado*, Tartasen *Onsa*, Zabalaren alegiak, Etxeberri Sarakoaren *Lau-urduri Gomendiozko carta edo guthuna*, Zalgizeren errefrauak, Axularren *Gero*, *Refranes y Sentencias*, Añibaroren *Guero Guero*, Basterretxearen bertsoak, Etxepare, Hualde Mayoren Mateoren Ebanjelioa eta Oihenarten *Atsotitzak eta Neurtitzak*. Haietako batzuen argitalpena, atalkakoa, Gerraren etenak bukagabe utzi zituen.

Aldizkaritik kanpo ere jardun zuen: Oikiako dotrina (1905-1906), Etxeberri Sarakoaren idazlanak (1907) eta Garibairen errefrauak (1919) ere gutxienez ezinutzizkoak dira.

Urquijoren sistema, ahal denean, *princeps*-aren ale baten faksimilea argitaratzea da. Honela diosku Axularren *Gero*-arenari buruz:

¿Cómo debe reimprimirse el *Guero*?

Una obra antigua —dice el sabio filólogo de Gratz [Schuchardt]— puede ser reimpresa de tres maneras: tal como ella es, tal como el autor la quería, o tal como el lector del día la necesita. Estas tres maneras corresponden perfectamente a las tres que señalé, aunque en orden diferente, en mi introducción a las *Obras vascongadas del doctor labortano Joannes d'Etcheberri* (pág. xlix), y que son: a) reimpresión fiel, en la que se respeta hasta en los más ínfimos detalles el texto de la edición príncipe; b) reproducción del mismo texto, pero corrigiendo las que se suponen ser erratas de imprenta de la primera edición; c) modernización de la obra.

Claro está, que de seguirse este último método en la nueva edición del *Guero*, cabría limitarse a ponerlo sencillamente en ortografía moderna o podrían introducirse en él alteraciones de más importancia, tales como la sustitución de muchas palabras de origen latino que Axular empleó, por otras genuinamente vascas. Labor es testa que a más de un vascófilo del país ha tentado y que sería de indudable utilidad, con tal de que se llevara a cabo sin excesivos radicalismos. De ella he de huir yo necesariamente, no solo por mi falta de aptitud para el caso, sino, muy principalmente, por la orientación que me gusta dar a mis estudios.

Descartada la idea de la modernización del *Guero*, no me quedan más caminos abiertos que los dos primeramente señalados; y si un vascólogo de la ciencia y autoridad de Schuchardt, encontró en la dificultad de señalar con toda seguridad las erratas de los textos vascos antiguos, motivo suficiente para no retocarlos, es evidente, que con mayor razón debía yo abstenerme de hacerlos, siquiera la adopción del segundo de los métodos citados no ofreciera, quizá, en el caso presente, dificultades tan insuperables, por diferir el vascuence de Axular, del de nuestros días, bastante menos que el del protegido de Juana de Labrit.

Aun decidido a respetar el texto primitivo, se me ofrecían varias maneras de llevar a la práctica mi idea, tales como la *reimpresión*, la *fototipia*, el *zincgrabado*, etc., etc.

Este último es el procedimiento que he escogido, finalmente, sin deshechar por eso la idea de estudiar las erratas de las dos primeras ediciones del *Guero*, en cuya labor me servirá de guía precioso el concienzudo y sabio trabajo del filólogo de Graz: *Ueber die...*

Pasartea luze-luzea da, baina oso ongi laburbiltzen du azken atal honetan iruzkindu ditugunen lana, eta honezaz gainera, zuzenean sartzen gaitu arratsaldean irabiatu behar dugun garaian iraungo zuen galderan, baita eman zitzaizkion erantzun ezberdinetan.

Zeren Etxeberri Sarakoaren idazlanen hitzaurrean (1907: 53) Urquijok lehen sisteman kokatzen ditu Azkuek egin zituen Añibarro eta Ubillosen argitalpenak (grafia berrituta); bigarreanean, Dodgsonen Mendibururen *JBDev*-en, Otxoa Arinen dotrinaren eta Kardaberatzen bizkaierazko dotrinaren berrargitalpenak (grafia errespetatu, baina hutsak zuzenduta); eta hirugarreanean, hala Vinsonek egindako Harizmendi eta Pouvreuren *Petites OEuvres*, nola Linchsmann-Schuchardten Leizarraga.

Lehenari dagokionez, hauxe deritza Urquijok:

Claro está que el método del señor Azkue, aceptable cuando se reimprime un libro con un fin de propaganda religiosa o cuando se trata de recabar adeptos para un determinado sistema ortográfico, no es conveniente si se quiere dar a conocer una obra inédita, como ocurre en el presente caso (1907: 53-54).

J. C. Guerraren *Los Cantares antiguos del Euskera*-ren erreseinan (1924) iritzi berbera, baina azalpen lasai eta arrazoituagoa ematen digu:

Su método de exposición es diferente del que nosotros hemos solido seguir en trabajos de la misma o parecida índole. A causa del carácter, hasta cierto punto, popular de la revista *Euskalerriaren Alde*, el autor, en vez de reproducir en primer lugar los textos antiguos en la ortografía original y comentarlos antes de reconstituirlos, los da desde luego en ortografía moderna, con lo que el filólogo tiene que recurrir a los apéndice I y II, demasiado breves, para ver si las correcciones introducidas le parecen justificadas (Urquijo 1924: 380).

Dodgsonen sistemaz uste zuena badakigu dagoeneko. Erants dezakegu Vinson are gogorragoa izan zela:

M. D., aur surplus, n'a pas respecté le texte du ministre du Briscous; il y a porté una hache sacrilège et l'a audacieusement "corrigé", modifiant des formes verbales, uniformisant les adverbes, régularisant l'orthographe. Ce volume n'est pas seulement un mauvais livre, c'est avant tout une mauvaise action (Vinson 1904: 270).

Hots, ez da bakarrik liburu txar bat, ezer baino lehenago egite txar bat baizik. Bidenabar, esan dezadan Dodgsonen gorabeherak (*dodgsonneries*) morbodun xamarrak diren arren, azpimarratu behar dela bere alde, lankideak ez bezala, Iparraldeko klasikoez bestelako gauza asko argitaratzen saiatu zela, gure zerrendan (ik. eranskina) ikus daitekeen bezala.

Eta, azkenik, hauxe da Urquijok hirugarren sistema erabiltzeko ematen duen arrazoia:

porque con la reproducción de una obra tal y como la escribió su autor, se facilita mucho la labor de los críticos a quienes no sea dado examinar su original; mientras que si se introducen en éste modificaciones de importancia, no será fácil apreciar qué parte del trabajo corresponde al autor de la obra que se da a conocer y cuál al editor (1907: 54).

Vinson honetan ere aurreraxeago doa Linschmann-Schuchardten erreseinan, hauen argitalpenak 1571eko argitalpena ederki *ordezkutzen duela* baitio.

Alabaina, faksimilearen sistema paregabea, berrargitalpenik zainduenak ere ezinbestean dituen akatsak zeharo saihesteko aukera ematen duena, alde batera utzi zuen eskuizkribuen lehenengo argitalpenak egin behar izan zituen bakoitzean, eta bakanago bada ere, argitalpen zaharra eskuraezin izan zuenean.

Ez dirudi orduan orain baino arazo tekniko gehiago zegokeenik eskuizkribuak faksimile bihurtzeko. Jakin badakigu orain egin daitekeela, Ulibarriren *Gutunliburuaren* faksimilea (1975) aurrean daukagunez gero. Ziurrenik orduan ere egin zitekeen. Hala ere, ez du honetaz batere azalpenik ematen, jakintzat emango bailuen. Eta nolatan jakintzat eman ez? Ezen eskuizkribu baten faksimilea egitea, bere burua filologotzat daukan batentzat, alferkerian eman daitekeen mailarik altuena baita, inolaz ere.

Nolakoak dira, orduan, faksimilez egin ez zituen argitalpenak? Bada, honetan datza Urquijoren lanaren alderdirik ahulena, azken urteotan sumatzen hasi garenez. "Azken urteotan" diot, zeren oraintsu arte Urquijoren argitalpenei faksimilearen pareko sinestea eman baitzaie: Tartasen ondoko argitalpenak (Eguzkitza 1975, Altuna 1987 eta



1995), Urquijorenean (*RIEV* 1907-1909) oinarritu dira; are Altunak, bere edizioetan eman ohi duen ezker aldeko paleografikoaren orde, haren faksimilea ezarri du.

Lana ez da zehazki Urquijorena bakarrik. Iturria Paueko liburutegiko alea izan zen, gordetzen omen diren bietarik onena. Baina ale hartatik kopia bat eragin zion Urquijok Dodgsoni lehendabizi, eta gero, arazo pertsonalak zirela kausa, lana Darricarrèrek bukatu zuen (ik. Urquijo, ap. Vinson 33. zb., 123. or.).

Tartasekin erabateko sinistea eman zaio, beraz, argitaratua hemendik kilometro batzuetara baino ez badago ere. Besterik izan da, ordea, egin zituen eskuizkribu zenbaiten edizioarekin. Izan ere, Lakarrak (1987) frogatu du Oikiako dotrinaren argitalpena (1905-1906) hutsez —huts larriz— josita dagoela. Argitaratzaile berriak argitaratzaile zaharrak orduan oraindik izan zezakeen eskarmentu txikiari egozten zion:

...ez zen atera ezein ikertzaile erretxin asetzeko eta lasaitzeko moduan. Huts asko da hor; irakurketazkoak bat edo beste, jauziak han edo hemen eta, bereziki arrazoi(tu) gabeko aldaketak (txistukarrietan batez ere) dexente (Lakarra 1987: 516).

Beharbada Azkue kopiatzaileari egotz dakizkioke, berriz, Zabalaren alegietan suma daitezkeen aldaketak eta hutsak, txiki bezain ugariak. Begi aurrean daukat *RIEV*-ekoaren fotokopia, neronek Azkue Bibliotekan gordetzen den jatorrizko testuaren argazkiarekin erkatua, eta gorritz tintatuta daukat, besteak beste argitalpenak ez baititu gorde Zabalak puntua markatzeko lerro jartzen zituen azentuak. Eta halaz ere, Anjel Zelaietak (1986), Bilboko Plaza Barriraino hurbiltzea larregi iritsita, nonbait, Urquijoren *RIEV*-eko argitalpena berrargitaratu du.

Honetaz gainera, ongi dakit Añibarroren *Geroko Gero*-arenean ere badirela hutsak, oharkabeko aldaketa txikiak eta are irakurketa txarrak ere. Lehenik esan behar dut, bestetan ez bezala, ez duela edizio irizpiderik inon azaltzen, beharbada ezinbestean, aldizkaria eten zen eta. Etxeberri Sarakoarena bezala egin bazuen, orduan jakintzat eman behar dugu Añibarroren azken zuzenketak letraldatu zituela. Ez du eskuizkribuan diren aldaketen konturik ematen; ohi bezala, ez eta testuan diren huts edo irakurketa zalantzazkoen konturik ere. Ikus ditzagun bere argitalpenaren lehen bi orrialdeak:

- (297) arg. *Dotore-etaric* < esk. *Doctore-etaric*  
 arg. *Bear diran licenciacaaz* < *Bear dirian licenciacaaz*
- (298) arg. *Liburu* < esk. *Libru*  
 arg. *ixuli* < esk. *iruli*  
 arg. *onetacoac* < *onetacooc*

“Como muestra un botón”, esan ohi denez.

## Bukaera

Gerra ostean argitaratzaileek aurkitzen duten tradizioa, ikusi dugunez, tradizio gorabeheratsu bat da, kontraesanez bete. Dena dela, hobeto edo txarrago egindako edizio haiek hazitxo bi bederen landatu zituzten geroko belaunaldien buruetan: testu zaharrak euskalari zein euskaltzaleok daukagun altxor miragarria direla, antzinako euskara nolakoa zen jakiteko dagoen iturri bakarra; eta, beraz, errespetuz argitaratu eta berrargitaratu behar direla, ez norberak gura duen modura.

Zein da, beraz, Gerra ostean hartzen den bidea? Arratsaldean ikusiko.

## Eranskina: 1936 arteko argitalpenak

(Lehen hurbilketa bat baino ez da; berariaz liburu zaharrak edota haien zatiak bakarrik jaso dira).

- 1831 – Leizarraga, *Sermon sur la montagne en grec et en basque* – arg. Lécluse
- 1847 – Oihenart, *Proverbes basques...* – arg. F. Michel eta Archu
- 1847 – Etxepare, *Poésies basques* – arg. Brunet – itzulp. Archu
- 1857 – Iturriaga, *Jolasak* – arg. Bonaparte
- 1864 – Axular, *Gueroco guero* – arg. Inchauspe
- 1866 – *Formulaire de prône* – arg. Bonaparte
- 1868 – Lizarragaren *Koplak* – arg. Bonaparte
- 1868 – Lizarragaren San Juanen ebanjelioa – arg. Bonaparte
- 1874 – Etxepare, *Poésies basques* – arg. Hovelacque & Vinson
- 1874 – Leizarraga, *L'Evangile selon Saint-Marc* – arg. Vinson
- 1877 – Leizarraga, *Evangile selon saint-Mathieu* – arg. van Eys
- 1877 – Mikoleta – arg. Dodgson
- 1881 – Mikoleta — arg. Sanpere i Miquel
- 1891 – *Saint Julien d'Antiochie. Pastorale en langue basque* – arg. Vinson
- 1891-1896 Leizarraga – arg. Dodgson
- 1892 – S. Pouvreau, *Les petites oeuvres basques* – arg. Vinson
- 1893 – Kapanaga – arg. Dodgson
- 1894 – Iztueta, *Textes des anciennes danses basques chantées* – arg. Stempf
- 1894 – Oihenart, *Supplément des Proverbes basques...* – arg. Stempff
- 1894 – Urte, *The Earliest translation of the Old Testament into the Basque language* – arg. Llewelyn Thomas
- 1897 – Añibarro, *Esku liburua* – arg. Azkue

- 1897 – Añibarro, *Lora-sorta* – arg. Azkue
- 1898 – Kardaberatz, *Eusqueraren berri onac* – arg. Dodgson
- 1898 – Urte, *Etorkia* – arg. Dodgson
- 1899 – Mogel *Peru Abarka* – arg. Azkue
- 1900 – Leizarraga osoa – arg. Linchsmann eta Schuchardt
- 1900 – Mendiburu, *JBDev* – arg. Dodgson
- 1901 – Harizmendi, *Virginaren officioa* – arg. Vinson
- 1902 – Otxoa de Arin, *Doctrina* – arg. Dodgson
- 1902 – Leizarraga, *I. Ch.en Evangelio Saindua S. Mattherren Araura* – arg. Dodgson
- 1903 – Leizarraga, *Testamentu Berria* – arg. Dodgson
- 1904 – Garibairen errefrauak (*EE* 51:2, 445)
- 1905-1906 – Oikiako dotrina, arg. Urquijo (*RLPhC*)
- 1907 – Etxeberri Sarakoaren idazlanak – arg. Urquijo
- 1907-1909 – Peñaflorida, *El Borracho burlado* –faksimilea (*RIEV*)
- 1907-1909 – Tartas, *Olsa* – arg. Urquijo (*RIEV*)
- 1907-1909 – Zabala, *Fábulas* - *RIEV* – arg. Azkue & Urquijo (?)
- 1908 – Leizarraga, *Testamentu Berria* – 1903koaren berrarg. (?)
- 1908 – Etxeberri Sarakoa, *Lau-urduri gomendiozco carta...* - *RIEV*
- 1908 – Zalgizeen errefrauak – arg. Urquijo (*RIEV*)
- 1908 – Lardizabalen *Testamentua* – arg. Orkaiztegi
- 1909 – Ubillos, *Kristabaren Ikasbidea* – Tolosa (edizio zuzendu eta aldatua)
- 1910 – Argaignarats, *Devoten breviariora* – arg. Vinson
- 1910-... – Axular, *Guero* – faks. (*RIEV*) bukagabea.
- 1911-1933 – *Refranes y Sentencias* – Urquijo (*RIEV*)
- 1919 – Garibairen errefrauak – arg. Urquijo (*El refranero vasco (1): Los refranes de Garibay*, Donostia: Martín, Mena y Compañía)
- 1923-... – Añibarro, *Guero guero* – Urquijo (*RIEV*), bukagabea.
- 1928 – Basterretxea, *Yosukristo Gure Yaunaren Nekaustea* – arg. E. Galdos
- 1931 – Basterretxea, *Jesu Cristo gure Jaunaren Passioa* – Urquijo (*RIEV*)
- 1933 – Etxepare, *Lingua Vasconum Primitiae* – faks. (*RIEV*)
- 1934 – Hualde Mayo, *S. Mateoren ebanj.* – Urquijo (*RIEV*)
- 1935 – Oihenart, *Atsotitzak eta neurtitzak* – faks. (*RIEV*)

## Bibliografia

Agirre, D., 1935, *Garoa (2. ageraldi obetua)*, Donostia: Euskaltzaleak.

- Akesolo, L. (arg.), 1970, *Joannes Etcheberri. Noelak eta kanta espiritual berriak*, Donostia: SGEP.
- Altube, S., 1928, "Bibliografía [E. Galdosen *Yosukristo Gure Yaunaren Nekaustea*-ren erreseina]", *RIEV* 19, 651-654.
- Altuna, P. (arg.), 1987, *Agustín Iturriaga. Jolasak*, Donostia: Euskal Editoreen Elkarte.
- Arana, S., 1984-1985, "Análisis filológico de un sermón euskérico escrito en 1792 por Don Juan Antonio Moguel, cura párroco de Markina, e inédito hasta la fecha", *Bizkaitarra*, 5 (1894, urtarrilak 1825), 1897 (martxoak 1897), 1898 (apirilak 1822), 1811 (ekainak 1829), 1812 (uztailak 1892) eta 1820 (1985, otsailak 1892). *OOCC* (2. ed.), Donostia: Sendoa, 211-229.
- Atutxa, I., 1999, "Joannes Etcheberri Ziburukoa: *Noelac* eta testu kritika", *Lapurdum* 4: Número Spécial 1, 233-312.
- Azkue, R.M. de, 1968, *Cancionero popular vasco*, (2. ed.). Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca.
- Camino, I., 1997, *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*, Donostia: Nafarroako Gobernua, Hezkuntza eta Kultura Departamentua.
- & R. Gómez, 1992, "Bonaparteren argitaratzeko irizpideez: Aezkoa, Zaraitzu eta Erronkariko dotrinak (I)", *ASJU* 26:2, 453-581.
- Galdos, E., 1928, *Yosuktsto gure Yaunaren Nekaustea euskerazko neurtitzez*, Donostia: Editorial Nueva S.A.
- Irigaray, A., 1935, "[D. Agirrearen *Garoa*-ren 1935eko edizioaren erreseina]", *RIEV* 26, 196-197.
- Kerejeta, M.J., 1991, "Oihenart Silvain Pouvreauren hiztegia", *ASJU* 25: 3, 865-899. [Geroago in R. Gómez & J. A. Lakarra (arg.), *Euskalaritzaren historiaz, I: xvi-xix. mendeak*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 183-218].
- Lakarra, J.A., 1984, *Euskal Thesauruserako gaiak: Hegoaldeko testuak (1700-1745)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHUko lizentziatura lan argitaragabea.
- , 1987, "Oikiako dotrina (1759)", *ASJU* 21:2, 515-564.
- Larramendi, M. de, 1729, *El Imposible Vencido. Arte de la Lengua Bascongada*, Salamanca: Antonio Joseph Villagordo Alcaraz. Faks., Hordago, Donostia, 1979.
- Mitxelena, K., 1968, "Sarrera gisa", in *1545 Bernat Dechepare Olerkiak*, Donostia: Edili [orain in *OOCC* XI, 87-95].
- Orcaiztegui, P.A., 1906, *Observaciones para hablar y escribir tolerablemente en nuestro idioma euskaro : breves reglas que, por encargo de la Junta directiva de la asociación "Euskal-Esnalea", publica uno de sus miembros [A. de Orcaiztegui]*, Tolosa: Imprenta, Librería y Encuadernación de E. López.
- , 1908, *Francisco Ignacio de Lardizabal. Testamentu zar ta berrico condaira: edo munduar*
- Urquijo, J. de, 1907, *Obras vascongadas del doctor labortano Joannes d'Etcheberri (1712) con una introducción y notas por ---*, Paris [Faks. *LGEV*, 1967].
- , 1924, "Bibliografía [J.C. Guerraren *Los cantares antiguos del euskera*-ren erreseina]", *RIEV* 15, 378-381.
- Villasante, L. (arg.), 1964, *Pedro de Axular. Gero (Después)*, (Espirituales españoles). Bartzelona: Juan Flors editor.
- , 1979, *Historia de la Literatura Vasca*, Oñati: Aranzazu. 2. arg. berrikusi eta osatua.
- Vinson, J., 1891-1898, *Essai d'une bibliographie de la langue basque*. Faks. J. Urquijoren oharrekin (*ASJU*-ren gehigarriak, 9), Donostia, 1984.
- , 1901, *L'Office de la Vierge Marie en basque labourdin par C. Harizmendi vicaire de Sare et prédicateur. Nouvelle édition conforme à la première de 1658*, Chalon-sur-Saone: Imprimerie Française & Orientale E. Bertrand.

- , 1904, “Bibliographie [Jesus-Christ gure launaren Testamentu berria (Londres, Trinitarian Bible Society, 1902) liburuari buruz].” *RLP*h*C* 37, 268-270.
- Zabala, J.M., 1907-1909, “Fábulas en dialecto vizcaíno”, *RIEV*, 1:1, 90-98; 91:95, 529-543; 523:521, 527:540.